

GUTUN KULTURALA - 2024ko APIRILA

LETTRE CULTURELLE - AVRIL 2024

Hitzordu kulturalak Azkainen

Rendez-vous culturels du mois à Ascain

- Apirilaren 14an, igandea, INTXAURRA antzerkia, Lesakako Mairu Antzerki Tailerrak emanik, 17:00etan, VVF St Ignace opor zentroan, 53 Haranederreko bidea.

Sinopsia :

Terexa gaixorik dago, baina bera ez du bere osasun egoerak arduratzen. Etxeko intxaurrondoaren osasunak kezkatzen du. Intxaurrondoak ere gaitza badu. Onddoren batek kalte egiten dio, eta fruituak, kanpoko azal eta guzi erortzen dira lurrera. Azalak intxaurrak ito eta usteltzen ditu. Terexak ez du sendagaiarekin asmatzen. Burutan du bere garaian konponbideren bat aurkitu zuela, baina burua ere galtzen hasia denez, ez du zehaztasunez gogoratzen. Larritasunak, gaixotasunarekin batera, Terexa itotzen du. Gero eta nekezagoa zaio arnasa hartzea.

Terexak tarteka herriko medikuaren eta Xorrotxa, gaztetako adiskidearen bisitak jasotzen ditu. Azken hau, urte luzez atzerrian aberastasunen bila ibili ondoren, berriki herrira itzulia da.

Baina bi lagun hauez gain, bere eldarnio eta ametsetan bertze hiru pertsoniarekin egingen du topo Terexak. Piarres, bere birraitatxi Ganixen lagun mina, lehen mundu gerran hildakoa, Osaba Miguel, errefuxiaturik zegoela hil zutena, eta Terexaren ama zena azkenik.

Hiru pertsonaia hauen mamuekin Terexaren familiaren historia ezagutuko dugu. Errealismo magikoan murgildu eta irudi poetikoak baliatzea da asmoa. Terexaren sentimendu eta emozioen bidez, inguratzen gaituen ekosistemak, inguratzen gaituzten baldintzek, guregan duten eragina azalerazi. Inguruko baldintzek eta ezaugarriek eragiten dutelako herriengan, hizkuntzengan, jendearengan... inguratzen duten lurrek landareengan eragiten duten moduan.

Testua : Gaizka Sarasola

Zuzendaritza : Mairu (Manex Fuchsén laguntzarekin)

Antzezleak : Josune Etxepare, Ainara Ribera, Ritxi Abril, Iban Garro, Juanen Saralegi, Gaizka Sarasola

Musika : Ibai Gogortza eta Gaizka Sarasola

Publiko guzientzat

Euskaraz

Sartzeak salgai egun bertan :
Helduak (15 urte +) 10€ - Precio apalak 5€.

Erreserbak Azkaingo Herriko Etxean 05.59.54.66.89

Dimanche 14 avril, la compagnie Mairu Antzerki Tailerra de Lesaka jouera **INTXAURRA** à 17h au VVF, Club de vacances Saint Ignace, 53 chemin Haranederrea.

Synopsis :

Terexa est malade, mais elle ne se soucie pas de son état de santé c'est la santé du noyer de la maison qui l'inquiète. Le noyer aussi est malade. Un champignon lui fait du mal, et les fruits tombent sur le sol, La coquille étouffe et pourrit les noix. Teresa ne sait pas comment le soigner. Elle sait qu'en son temps elle avait trouvé une solution, mais comme elle commence aussi à perdre la tête, elle ne s'en souvient pas avec précision. L'angoisse avec la maladie étouffe Terexa. Elle a de plus en plus de mal à respirer.

Nous allons connaître l'histoire de la famille de Terexa.


Tout Public – En basque

Billets en vente sur place : Tarif adulte (+ 15 ans) 10€ - Tarifs réduits 5€.

Réservations à la mairie d'Ascain au 05.59.54.66.89

- Apirilaren 17an, asteazkena, **ERROMAKO ZUBIA** ipuin musikala, Itzuli konpainia emanik, 16:00etan Biltokin.

Sinopsia :



Behin bazen mundu miresgarri bat nun denak bakean bizi ziren. Alta, egun batez, sorgin txar batek erabaki zuen lurra berea zela eta zorte bat bota zion. Orduetik, emeki emeki, landare eta abere batzuk desagertzen hasi ziren. Ezti erle bat zen eta egunero gero eta ahizpa gehiago galtzen zituen. Gau batez, kofoinera sartu zen eta hutsa atzeman zuen. Erle guziak desagertu ziren. Gau hartan, amets egin zuen. Ikusi zituen bere ahizpak dantzatzen eta ohartu zen zerbait idazten ari zirela... Erro, erroma, erromako, erromako zu, erromako zubia. Mezu bat zen. Hortaz segur zegoen, Eztik atzeman behar zuen erromako zubia bere ahizpak salbatzeko...

Interpreteak : Madda Luzzi eta Maryse Urruty

Marrazkiak : Viviane Michel

Ikusgarria denentzat 5 urtetik goiti - Euskaraz

Sartzeak salgai egun bertan :

Helduak (15 urte +) 10€ - Prezio apalak 5€ - Urririk 12 urte arte

Erreserbak Azkaingo Herriko Etxean 05.59.54.66.89

Mercredi 17 avril, **ERROMAKO ZUBIA** conte musical en basque par la compagnie Itzuli à 16h à Biltoki. A partir de 5 ans

Synopsis :

Il était une fois un monde merveilleux où tout le monde vivait heureux... jusqu'au jour où un sorcier décida que la terre lui appartenait. Il prononça une malédiction et petit à petit, les plantes et les animaux commencèrent à disparaître. Ezti, une abeille noire, voyait chaque jour ses sœurs s'éteindre. Un soir, elle trouva sa ruche vide, toutes les abeilles avaient disparu. Cette nuit-là, en rêve, elle vit ses sœurs danser, elles écrivaient quelque chose dans l'air : « Erromako Zubia » le pont romain. C'était un message, elle en était sûre, Ezti devait retrouver le pont romain pour sauver ses sœurs.

Interprètes : Madda Luzzi et Maryse Urruty

Illustrations : Viviane Michel

Conte musical en basque pour tous à partir de 5 ans

Billets en vente sur place : Tarif adulte (+ 15 ans) 10€ - Tarifs réduits 5€ - Gratuit jusqu'à 12 ans
Réservations à la mairie d'Ascain au 05.59.54.66.89


- Apirilaren 19an, ostirala, **PIARRES LARZABAL – Euskal antzerkiaren hatsa** mintzaldia, 19:00etan Biltokin, Eukaltzaindiak emanik.

Piarres Larzabal, Azkaineko idazle, apez eta euskaltzain izanaren obraz, biziaz eta herriko antzerkigintzan utzi duen ondareaz arituko dira Ixabel Etxeberria eta Jon Casenave. Pantxoa Etxegoin aurkezle-lanetan ariko zaigu eta bideo bidezko lekukotasunak eskainiko ditu gaualdian zehar (P. Larzabal ezagutu zuen Daniel Landarten lekukotasuna eta Larzabalen artxiboko irudiak) ; antzezlanen irakurraldiak ere ez dira faltako.

ERROMAKO ZUBIA

Itzuli konpainia

Maryse Urruty eta Madda Luzzirekin



Euskarazko ipuin musikatua
5 urtetik goiti

Apirilaren 17a, 16.00
Azkaine, Biltoki gela

eke-icb

Mintzaldia euskaraz – Dohainik

Vendredi 19 avril, **PIARRES LARZABAL – Le nouveau souffle du théâtre basque**, conférence proposée par l'académie de la langue basque Euskaltzaindia à 19h à Biltoki.

Euskaltzaindia a convié cette année les conférenciers Ixabel Etxeberria et Jon Casenave afin d'évoquer Piarres Larzabal, écrivain, prêtre et académicien d'Ascaïn, son parcours et bien sûr son œuvre majeure en faveur du théâtre populaire en langue basque. Pantxoa Etxegoin présentera la conférence (gratuite) à Biltoki et proposera des témoignages vidéos (avec Daniel Landart proche de P.Larzabal et des images d'archives de Larzabal) ainsi que des lectures choisies.

En basque avec traduction simultanée en français

Entrées libres

Piarres LARZABAL
Euskal antzerkiaren hatsa
Le nouveau souffle du théâtre basque

AZKAINE
mintzaldia - conférence
BILTOKI gela
apirilak 19 avril - 19:00

Mintzaldia euskaraz (avec traduction simultanée en français)
ondotik aperitifa - suivi d'un apéritif

HIZLARIAK - CONFERENCIERS

Ixabel Etxeberria Jon Casenave Pantxoa Etxegoin

antolatzaileak - organisateurs

EUSKALTZAINDIA

LES HISTOIRES DE JULIE

- Apirilaren 24an, asteazkena, **Chut je dors !** ipuina, Azkaingo liburutegian, 10:30etan, Les Histoires de Julie emanik.

Frantsesez – 0-3 urtekoentzat – Urririk – Izen emateak contact@leshistoiresdejulie.fr

BIBLIO D'ASCAIN
Des rendez-vous contes pour tous les âges !

SAMEDI 27 JANVIER 10h30
0-3 ans / Petites colères !

MERCREDI 21 FEVRIER 10h30
3-6 ANS / Frustré moi ?

SAMEDI 30 MARS 10h30
7-10 ANS / Aventuriers de l'extrême !

MERCREDI 24 AVRIL 10h30
0-3 ANS / Chut je dors !

SAMEDI 25 MAI / 10h30
3-6 ans / Drêles de bêtes !

SAMEDI 15 JUIN / 10h30
7-10 ans / Joue ton conte !

ENTRÉE LIBRE
RÉSERVATION CONSEILLÉE
contact@leshistoiresdejulie.fr

ASCAIN AZKAINE

LES HISTOIRES DE JULIE

Mercredi 24 avril, **Chut je dors !** conte à la bibliothèque d'Ascain à 10h30 par Les Histoires de Julie.

0-3 ans – En français – Entrée libre – Réservation conseillée contact@leshistoiresdejulie.fr.

- Apirilaren 28an, igandea, ANCA ELENA & THIBAUT SOLORZANO-ren kontzertua, 18:00etan Azkaingo Elizan.

Dimanche 28 avril, concert joué par ANCA ELENA & THIBAUT SOLORZANO à 18h à l'église d'Ascain.

Le programme de ce récital comprendra la sonate de Frédéric Chopin op.65 , les Fantasiestücke op.73 de Robert Schumann ainsi que la sonate n.2 de Gabriel Fauré op.117. Ce concert fait partie d'une série de concerts qui ont été donnés dans plusieurs villes de Roumanie. Ce duo a été formé en 2022 après la pandémie par la passion des deux musiciens par la création de musique nouvelle et le répertoire classique.

Billets en vente sur place – Entrée du concert à 15€, libre pour les enfants et les étudiants.

- **EUSKARALDIA URTE GUZIAN AZKAINEN** larunbat guziz 10etan Merkatu estalia arigune bilakatuko da.

EUSKARALDIA TOUTE L'ANNÉE A ASCAIN, tous les samedis matin, à 10h, le marché alimentaire de la place sera Arigune. Venez nous rejoindre si vous voulez parler en basque quel que soit votre niveau.

- **BESTE EKITALDIAK – AUTRES EVENEMENTS**

Panneau Pocket-en eta Azkaingo Herriko Etxeko webgunean, apirilan izango diren beste ekitaldiak atxemango dituzue.

Vous trouverez les autres événements du mois d'avril sur Panneau Pocket et le site internet de la mairie.

- **ZUEN AGENDAN EZARRI – A NOTER SUR VOTRE AGENDA**

- Maiatzaren 19an, igandea **AKORDEOI EGUNA**, akordeoilariekin kalejira, animazio ezberdinak eta 16:00etan kontzertua bat elizan Joxan Goikoetxea, Gérard Luc, Gontzal Mendibil eta Pantxo Carrèrekin.



Dimanche 19 mai, **JOUR DE L'ACCORDEON** avec diverses animations et à 16h, concert à l'église avec Joxan Goikoetxea, Gérard Luc, Gontzal Mendibil et Pantxo Carrère.